




# Osasuna Politika Guztietan

**BATZORDE TEKNIKOA**



Txosten  
sektoriala **2019**

**Enplegua**

2021eko martxoa



*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD



## Emplegua

Asko dira osasuna eta ongizatea eragiten dituzten faktoreak, eta enplegua osasun arloko desberdintasunen egiturazko gizarte adierazle bat da, beraz, lana sortzeak osasun ekitatea eskuratzen lagunduko du.

Langabeziak ekonomiari eragiten dio eta, gainera, ondorioak ditu pertsonen osasunean. Azterketen arabera, depresioa da lanik gabe dagoen pertsona baten ondorio ohikoena; nolahi ere, badira langabeziarekin lotutako eta langabeziaren ondoriozko beste konplikazio batzuk ere, desesperazioa eta antsietatea, adibidez; lana bilatzeak estresa sortzen du. Arazo ekonomikoek familia-arazoak ekar ditzakete, eta jakina da egoera animikoak osasuna hondatzen duela, oro har, eta diabetesa edota hipertentsioa eragin ditzakeela. Bakartze sozial arriskua ere ekar dezake errutina galtzeak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean badakigu enpleguak balio handia duela, eta, horregatik, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa jarri zen abian, helburu estrategiko hauekin: 2020ko azken hiruhilekoan langabezia-tasa %10etik behera jaitea, 2017-2020 aldian 20.000 gazteri lan-aukera bat eskaintzea eta aldi horretan 58.000 lanpostu sustatzea enpresa berriak sortuta, kontrataziorako pizgarriak abian jartzea, enplegu-aukera gutxien dituzten pertsonen zuzenduta, eta birgaitzearen sustapen publikoa, enplegua sortzeko sektore intentsibo gisa.

Helburu horiek Osasun Plana 2013-2020 izenekoaren lehentasunezko 5 arloak garatzen lagunduko dute.

Enplegurako Plan Estrategikoak positiboki eragingo du esfera pertsonalean, familiarrean eta sozialean gizarte ekonomiaren, tokiko garapenaren eta eskualde zein udalerrri behartsuenetako enpleguaren aldeko babes espezifikoaren bidez, eta osasun inekitatea arriskua gutxituko du.

Langabeziaren kronifikatzea saihesteak izan behar du langabeziaren aurkako borrokaren lehentasunetako bat, pertsonengan eragiten dituen ondorio larriengatik (gizarte bazterketa arriskua, autoestimua arazoak edo enplegu bat lortzeko itxaropen txikiagoak), bai eta gizartean, oro har, eragiten dituenengatik ere (desberdintasun handiagoak).

Helburu hori lortzeko, lana aktibatzekeo neurri espezifikoak hartuko dira kalteberatasun berezia edo lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituzten taldeentzat, DSBEn onuradun direnentzat, langabezia denbora luzea daramaten pertsonentzat eta 45 urtetik gorako langabeentzat, gazteentzat, desgaitasunen bat duten pertsonentzat, etorkinentzat eta abar. Lan-merkatuan sartzen laguntzeko ahozko jardueraren integralen bidez, pizgarrien bidez eta merkatu babesetik gauzatuko dira neurri horiek, enplegurako zentro berezien eta gizarteratze enpresen edo tokiko zein eskualdeko planen bidez.

	2019	METATUA 2017-2019
Pizgarriak izan dituzten enpleguak	23.775	57.918
Lan-aukera bat eduki duten gazteak	10.693	27.808
Laguntza izan duten enpresak	2.086	5.613

Enplegua lortzeko aukera okerragoak dituzten taldeak lehenesten dituzten ekintzekin eta, oro har, langabezia gutxituta, Enplegurako Plan Estrategikoak gizarte ongizatea sendotzen duten egiturazko eta bitarteko adierazleetan eragitea aurreikusten du, osasuna sortzeko eta osasun ekitatea areagotzeko.

**Gazteen osasunak** ere irabaziko du planak lana eta familia uztartzeko, gazteen artean enplegua sustatzeko edota gazteentzako prestakuntzaren eta belaunaldi-txandaketaren inguruan planteatutako ekintzekin. Gazteen enpleguaren sustapena Lehen Aukera bezalako programen, gazteen ekintzailtzarako laguntzen, prestakuntza dualaren, unibertsitateetako campusetako enplegu zentroen eta txandatze-berritze programen bidez garatzen dira, bai eta tokiko eta eskualdeko planetan gazteak kontratatuta ere.

	2019	METATUA 2017-19
Lehen Aukera programa	616	1.423
Hezkuntza mundutik lan mundurako trantsizioa	3.576	10.680
Gazteen ekintzailtzaren aldeko laguntza	1.515	3.412
Tokiko eta eskualdeetako enplegu planetan kontratatutako gazteak	1.033	2.955
Enplegu eskaintza publikoetako gazteak	3.133	7.046
Errelebo-kontratua	65	143
Gazteak itzultzeko programa	12	18
Prestakuntza-enplegu beka	710	2.065
Sektore espezifikoetako laguntza-programak	33	66
<b>LAN-AUKERA BAT EDUKI DUTEN GAZTEAK GUZTIRA</b>	<b>10.693</b>	<b>27.808</b>

Gainera, Enplegu Plan Estrategikoak Renove Birgaitze ildo bat jasotzen du, osasun-zentroak birgaitzeko eta birmoldatzeko *Renove Osasuna* programekin; hala, enpleguaren sektorea dinamizatzeaz gain, osasun-zentro eta ekipamendu publikoen eskaintza eta zerbitzu egokiak bermatzen ditu.

## 2020RAKO AURREIKUSITAKO EKINTZAK

Bizimoduak edo herentzia genetikoak bezalako banakako faktoreen ginetik, euren bizi eta lan baldintzei eragiten dieten beste determinatzaile sozial eta ekonomiko batzuek eragiten dute pertsonen osasunean, eta gaixotasunekiko zaurgarritasuna areagotzen dute.

Enplegurako Plan Estrategikoa 2017-2020 ez ezik, Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021 ere badu Enplegu Zuzendaritzak, sozialki ahulagoak diren taldeen osasun kaskarragoa eragiten

---

duten zirkunstantzia, aukera eta baliabideen banaketa desberdinari modu integralean, dimentsio askotatik eta hainbat erakundetatik aurre egiteko.

#### **2020rako aurreikusitako ekintzen artean ondorengo hauek azpimarra ditzakegu:**

**IV. Gizarteratze Planaren** esparruan, toki-mailako koordinazio-mahaien lau proiektu pilotu jarriko dira abian aurtan (Otxarkoaga, Durango, Eibar eta Lasarte), enplegu, osasun, hezkuntza, etxebizitza eta gizarte-zerbitzuetako zerbitzu publikoen jarduerak koordinatu ahal izateko; izan ere, gizarteratzea ezin da ikuspegi materialetik bakarrik ulertu, ondasunak eta zerbitzuak sortu eta kontsumitzeko lan-merkatuaren aktibazio huts modura, pertsonaren beste dimentsio asko ere hartzen baititu. Dimentsio anitzeko errealitate pertsonal horrek sektoreen arteko esku-hartzea eskatzen du, eragileen eta erakundeen aldetik koordinatuta.

**Enpleguaren arloan**, LANBIDEk prestakuntza eta enplegu-programa bat abiaraztea aurreikusten da, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin koordinatuta, maskulinizazio handiko sektoreetan enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sustatzeko, profesionaltasun-ziurtagiria duten emakumeen jarduera- eta okupazio-tasa handitzeko; 500.000 euroko aurrekontu-zuzkidura izango du 2020ko ekitaldirako, eta 2.000.000 eurokoa 2021eko ekitaldirako.

Era berean, iraupen luzeko langabetuak birkualifikatzeko programa bat jarriko da abian, genero-ikuspegiarekin, etorkizuna duten enplegu berdeko nitxoetara sartzeko gaitzeko (baso-kudeaketa iraunkorra, nekazaritza ekologikoa, eraikinen birgaitze energetikoa, energia berriztagarrien instalazioa, turismo iraunkorra eta abar); 500.000 euroko aurrekontu-zuzkidura izango du 2020ko ekitaldirako, eta 1.500.000 eurokoa 2021eko ekitaldirako.

Bestalde, handitu egin da tokiko enplegua garatzeko eta sortzeko proiektuetara eta tokiko enplegua sustatzeko ekintzetara bideratutako aurrekontu-zuzkidura lehentasunezko jarduera-eremuetan (Ezkerraldea, Meatzaldea, Oarsoaldea eta Bidasoaldea) eta emakumeen langabezia-indizeak Euskadiko batez bestekoaren gainetik dauden eskualdeetan (Aiaraldea, Arabako Errioxa, Enkarterri, Ibaizabal, Debabarrena eta Bidasoaldea), emakumeen kontratazio mugagaberako laguntzak hobetuta eta euren soldata gizonen soldatarekin parekatzea bermatuta; aurrekontu-zuzkidura 6.000.000 eurokoa izango da 2020ko ekitaldirako, eta 4.000.000 eurokoa 2021eko ekitaldirako.

**Gazteen enplegua** sustatzeko ekintzei dagokienez, honako ekintza hauek egingo dira:

- LANBIDEk prestakuntza eta enplegu-programa bat jarriko du abian, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin koordinatuta, kulturaren arloan prestakuntza duten gazteen (Arte Ederretan, ikus-entzunezkoetan lizentziadunak, irudiaren eta soinuaren LHko goi-mailako graduak eta abar) enplegarritasuna, birziklapena eta autoenplegua hobetzeko; 2.500.000 euroko aurrekontu-zuzkidura izango du 2020ko ekitaldirako, eta 2.500.000 eurokoa 2021eko ekitaldirako. Besteren konturako langileak eta kooperatibistak kontratatzeko ildoak txertatuko dira, bai eta beren lanbideak desagertzen ikusi dituzten eta prestakuntza espezifikoa eskatzen duten profesionalen gizarte-ekonomia eta birziklapena bultzatzeko ildoak ere, eta genero-ikuspegia aplikatuko da.
- “LEHEN AUKERA” programa birmoldatu da, langabezian dauden eta LANBIDEn enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden gazteen enplegarritasuna hobetzeko, eta lehentasuna eman zaie kontratazio mugagabeari eta gutxienez bi urteko iraupena duen kontratazioari, bai eta erreferentziako hitzarmena aplikatzeari ere, batez besteko 1.200 euroko soldata erreferentzial gisa hartuta. Langile autonomoei zuzendutako antzeko programa bat diseinatzeko bideragarritasuna aztertuko da.